

Aste Santua Sagardoetxean: Euskal Herriko gazten dastaketa

Non: **Astigarraga**

Lekua: **Sagardoetxea** Hasiera: **2011/04/21**

Bukaera: **2011/04/30**

Sarrerak: **5,00 €**

Antolatzailea: **Sagardoetxea. Euskal Sagardoaren Museoa**



Sagardoetxeatik sagardogintzaren kultura barneratzeko aukera eskaintzen dizuegu museorako bisita, Euskal Herriko gazten dastaketa eta sagardotegi bateko bisitaldiarekin.

Sagardoetxeak sagarra eta sagardoaren historia eta errealitatera gerturatzeko hiru gune dauzka: sagastia, sagarraren kultura modu dinamiko eta pedagogikoan gozatzeko aukera ematen duena; museo-gunea, sagarra eta sagardoaren iragana, oraina eta geroa ezagutzeko lekua; dastaketa gunea, sagardoa txotx-eko ohituran eta Sagardoetxeak aukeraturiko beste produktu batzuk dastatzeko aukera ematen duen lekua: muztioa, likorea eta sagar dultzea.

- **Sagar bilketa eta zanpaketa**

Bisitariiek sagardoaren elaborazio prozesuan parte hartzeko aukera izango dute: kizkiarekin sagarrak lurretik bildu eta pisoiekin zanpatu.

- **Euskal Herriko gazten dastaketa**

Bisitariiek Euskal Herriko gazta ezberdinen dastaketa egiteko aukera izango dute, esaterako: idiazabal J.D. gazta, Ronkal J.D. gazta eta Irati J.D. gazta.

- **Sagardotegian bazkaria/afaria**

Sagardoetxearako bisitaldia osatzeko, eskualdeko sagardotegi tradizional bat ezagutu eta otordu berezi batez gozatzeko aukera eskaintzen dizuegu, sagardotegiko ohiko menua dastatuaz: bakailao tortila, bakailao frijitua piper berdeekin, txuleta eta gazta irasagar eta intxaurrekin.

Aste Santuan irekiak dauden sagardotegiak:

- Alorrenea sagardotegia (Astigarraga). Telf.: 943336999 (Apirilaren 21etik 25era).
- Astarbe sagardotegia (Astigarraga). Telf.: 943551527 (Apirilaren 21etik 24ra).
- Gartziategi sagardotegia (Astigarraga). Telf.: 943469674 (Apirilaren 21etik 24ra).
- Gaztañaga sagardotegia (Andoain). Telf.: 943591969 (Apirilaren 21etik 24ra).

- Lizeaga sagardotegia (Astigarraga). Telf.: 943468290 (Apirilaren 21etik 23ra).
- Petritegi sagardotegia (Astigarraga). Telf.: 943457188 (Apirilaren 21etik 25era).
- Rezola sagardotegia (Astigarraga). Telf.: 943552720 (Apirilaren 21etik 25era).
- Saizar sagardotegia (Usurbil). Telf.: 943364597 (Apirilaren 21etik 24ra).
- Txopinondo sagarnotegia (Azkaine). Telf.: 0033559546234 (Apirilaren 21etik 25era).

Ordutegiak:

Apirilaren 21etik 25era: 11:00-14:00 • 16:30-20:00.

Apirilaren 26tik 30era: 11:00-13:30 • 16:00-19:30.

Tarifak: 5,00 € pertsonako (bisita eta sagardo, muztio likore eta gazten dastaketa barne).

Lotura interesgarriak

- [Sagardoetxea](#)

[« Volver](#)